

ZIENTZIA IKASGELETARA #15

ERAMATEKO EZINBESTEKO 15 AHOLKU

1. GUTXIAGO GEHIAGO DA

Jar itzazu **helburu argi eta errealistak**, egingo duzun jarduera edozein dela ere.



2. ZER KONTATUKO DIET?

Hezkuntzaren esparruan aldez aurretik jakin ditzakegu ikasleen ezagutzak. **Informa zaitez** edukiak prestatzeko.



3. EZAGUTU ZURE PUBLIKOA

Ikasleen errealitatearekin konektatzen duten **puntu komunak** bilatu. Hezkuntza-maila bakoitza unibertso bat da.




4. ESZENOGRAFIA

Prestatu espazioa, ziurtatu baldintzak egokiak direla, **denak funtzionatzen duela**, berrikusi materiala. Logotipoak sartu dituzu?



5. KOMUNIKATZEAK UKO EGITEA DAKAR

Egokitu zure diskurtsoa **ulergarria** izan dadin. Abiapuntu erakargarria prestatu eta metaforak, pasadizoak eta elementu grafikoak erabili. Saihestu testuz betetako diapositibak.



6. ELKARRERAGIN

Estrategiak erabili taldeak parte har dezan. Komunikazioak eta ikaskuntzak norabide bikoak izan behar dute beti.




7. ESTEREOTIPOAK

Erakutsi zure alderik **hurbilena**. Zientzian lan egiten dugun pertsonak ez gara hain desberdinak: merkatura goaz, kirola egiten dugu, familia daukagu...



8. OTSAILAK 11 EGUNERO

Emakume erreferenteak beharrezkoak dira ekintza guztietan, eremu guztietan, egunero. Urte osoan zehar.



9. ZIENTZIAREN ZEREGINA

Adierazi zientzia eta teknologia **gizateriaren zerbitzura** daudela eta munduan, esparru guztietan, gertatzen diren aldaketei erantzuten dietela.



10. ZIENTZIA INKLUSIBOA ETA UNIBERTSALA

Pertsona guztientzat **eskuragarri den dibulgazioaren** aldeko apustua egin behar da, edozein dela ere pertsona horien egoera, desgaitasuna, testuinguru kulturala, soziala edo ekonomikoa.



11. ZIENTZIA IKASI ZIENTZIA EGINEZ

Ikasleek **ezagutza zientifikoa eraikitzeko** prozesuetan parte har dezatela; adibidez, esperimenduekin.



12. KULTURA ZIENTIFIKOA

Kultura zientifikoa pertsona guztien eskubidea da. Zure jarduerak **alfabetatze zientifikoa** bultzatzen dute.



13. ZIENTZIAREN BALIOAK

Ikerketak **erresilientzia, pazientzia eta etika** eskatzen ditu. Zientziaren funtsa, ezagutza zientifikoaren **mugak** eta **talde-lanaren** balioa transmititu.



14. HERRITARREN ZIENTZIA

Ahal bada, erakutsi zure jarduera argitzen edo babesten duten herritarren zientzia-**proiektuen adibideak**.



15. SAIOA EBALUATU

Kuantitatiboki eta kualitatiboki, jarduerak xede-publikoarengan duen eragina **ebalatu** eta, era berean, **autoebaluazio** bat egin. Jarduera bakoitza ikaskuntza bat da!

